



# Japoniako Brilliant Harmony-k ordezkatuko du Tolosa European

**ALDE HANDIZ** ▶ Japoniarrek irabazi dute lehiaketa; beste hainbat sari ere lortu dituzte

**HAURRAK** ▶ Txinako Lilly Children abesbatzak irabazi zuen haurren abesbatzetan

**SARIAK** ▶ Kubako Schola Cantorum Coralinak lortu du ikus-entzuleen saria ▶ 2,3



Japoniarrak, pozarren, saria eskuratu ostean Leidorren atzealdean. IRATXE ETXEBESTE



Haurretan, txinarrak garaipena ospatzen. Behean, estoniarrak . i. e.

**TOLOSA** ▶

### Zesta-punta Elkartea, eskola baino gehiago

40 bat lagun aritzen  
dira egun ikasten ▶ 7

**XABIER MENDIA** ▶ TELEBISTA AURKEZLEA

### «Ezkorra izan arren, telebistak ez du onerako bidea egingo»

Telebistan guztia adostua dagoela dio  
tolosarrak; irratia nahiago omen du ▶ 6



ETB

**TOLOSA** ▶

### Austrian ariko dira herriko soinujoleak

Isidro Larrañaga  
orkestrakoak dira ▶ 5

TOLOSAKO 36. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

# Japoniako Brilliant Harmony-k irabazi du Abesbatza Lehiaketa

Talde hori ariko da 2005ean Bulgarian izango den Europako Abesbatza Lehiaketan; euskal kantu bat ongien interpretatu duen taldeari saria ere lortu du; haurretan, China Lilly Children izan da garaile

J. ASTIBIA - I. ETXEBESTE

Japoniako Brilliant Harmony abesbatzak irabazi du Tolosako 36. Abesbatza Lehiaketa, eta ondorioz, talde hori izango da 2005eko maiatzaren 22an Varnan (Bulgaria) izango den Europako Abesbatza Lehiaketan Tolosa ordezkatzu jardungo duena. Bere zuzendari Ko Matsushitak jaso zuen atzo Gipuzkoako Kutxak urtero eskaintzen duen Kutxa Sari Nagusia —2.000 euro, garaikurra eta txapela— eta Europako Sari Nagusirako izendapena, Eusko Jaurlaritzako Euskara Kontseilariorde Gurutz Larrañagaren eskutik.

Euskal kantu bat ongien interpretatu zuen abesbatzari saria ere japoniarrek lortu zuten, Xabier Sarasolaren *Mendian gora* obra «hain txukun» kantatzeagatik. Lan horixe eskaini zieten Brilliant Harmonyko kideek atzo goizean Leidor zinema antzokira hurbildu ziren ikus-entzuleei saria jaso aurretik. Ahots berdinetan, polifonia eta folklore sailetan ere haiek lortu zituzten lehen sariak.

Kubako Schola Cantorum Coralina abesbatzakoak ez ziren, ordea, atzean geratu, ikus-entzuleen saria ez ezik, beste hainbat ere lortu baitzituzten: ahots taldeetan, bigarren izan ziren musika profanoan eta hirugarren musika sakran, eta ahots nahasietan bigarren izan ziren polifonian eta irabazle folklorea. Abesbatzaren zuzendari Alina Orracak kantuan eta dantzan jarri zituen sarritan, bere taldeko abeslariekin batera, lehiaketaren itxialdi ekitaldira joandakoak.



Japoniako Brilliant Harmony abesbatzako kideak, haien ohiko jantziekin, pozarren, lehiaketaren irabazle zirela jakin zuten unean. IRATXE ETXEBESTE

Haur abesbatzei dagokienean, txinatarrak izan ziren nagusi. Lilly Children abesbatzako kideek hunkituta irten zuten oholtza gainera, eta kolore bizi-ko abanikoak astinduz eskaini zuten kantuak ahozabalik utzi zituen bat baino gehiago. Are harrituago geratu ziren ordura arte euskaraz kantatzen ikusi ez zituztenak. Izan ere, ederki kantatu zuten Txinako berrogei neskatilek, Wang Xizhen zuzendariak gidatuta, David Azurzaren *Gaueko hamabitan*.

Txalo artean joan zen atzoko ekitaldia. Saria zegokien abesbatzek taula gainera irten, eta hautatutako obra interpretatu ostean berriz ere behera. Talderen bateko edo besteko or-

dezkariek egin zuen eguneko, ordea: Alemaniako I Vocalisti-ko zuzendariak lan dezentte eman zien aurkezleei, obra bat hautatua izan arren, euskarazkoek jendartean zuten harrrera ikusita aldatu egin nahi izan zuelako azken orduan. Erresuma Batuko Trinity College-ko zuzendaria noiz irtengo bizpahiru minutu zain egon behar izan genuenekoan ere ez ziren askoz lasaia egongo.

Kontuak kontu, ohiko eran agurtu zuten bertara hurbildutakoek ekitaldia: *Agur jaunak* kantatuz. Agur, beraz, aurtengoan Tolosara etorritako bateko eta besteko parte-hartzaileei. Agur lehiaketari. Eta agur, baita ere, Leidor antzokiari.



Ahots nahasietako folklore saileko irabazleak: Alemaniako I Vocalisti-ko, Erresuma Batuko Trinity College-eko, eta Kubako Schola Cantorum Coralina-ko zuzendariak, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Joxe Juan Gonzalez Txabarriren eskutik saria jasotzen. IRATXE ETXEBESTE



## 36. Tolosako Abesbatza Lehiaketa

Babesle Ofiziala



**IRITZIA ▶  
MIGEL ZEBERIO**

**Kantuak joan dira ametsetan**

**A**tzokoan Tolosako Leidor antzokian entzundako kantu eta txalo zaparrada etengabearen oroimenak jende askori memorian utzi digun arrastoa ezabatzeko zaila da benetan, bai eta beraz bizitu ez duenari adieraztea ere. Aurreko kroniketan aipatu ez ditudan igandeko zenbait saio gogoangarri izan zuten ordaina sariak banatzerakoan. Hauze da Japoniako Brilliant Harmony emazte korua eta bere zuzendariaren kasua. Sari nagusia eskuratzeko beharrezko merituak egin zituzten. Garai guztieta-ko musikak mugimendu niimioez eraldatzen zituen gizonak, keinu estridentziarik gabe. Mendebaldeko kulturaz duen jakinduria uneoro erakutsi zuen. Ukrainarren doinu dentsitatea noizbehinka lortuko balute perfektuak liriteke. Berriz ere aberastasuna eta taldeen arteko osotasuna.



IRATXE ETXEBESTE

rri aurretik oso zaila egin zai-gu Euskal Herriaz informazioa eskuratzeko, baina orain ni arduratuko naiz hemen ikusi dudana kontatzeaz eta herri hau oso polita dela barreiatzeaz, lasai.

**Bulgarian burutuko den Europako Abesbatzen Lehiaketara joan beharko duzue orain.**

Bai. Buf! Bihar hasiko gara kontzertu hori prestatzen. Laister da eta! ◀

**KO MATSUSHITA ▶ JAPONIAKO BRILLIANT HARMONY ABESBATZAREN ZUZENDARIA**

**«Ohartu naiz euskalduna oso entzule apasionatua dela»**

Kutxako Sari Nagusia jaso, ekitaldia bukatu eta oraindik ere lortutakoa ezin sinetsiz, Leidor kanpoaldean arreta eskaini zigan kazetari, bere abesbatzako kantariak inguruan argazkiak ateratzen ari zirelarik eta tartean, ezagunen zorianak eta txaloak ere, jasotzen zituen bitartean.

**Zer irudipen gelditu zaizu, lehiaketan parte hartu eta gero?**

Japonian ospetsua da Tolosako abesbatzen lehiaketa hau, hango koru batzuk izanak baitira hemen lehen ere. Lagun batek hitzezin zidan eta beti gogoan genuen hona etortzeko. Harri-garria iruditu zait, ohartu bainaz euskaldunen izpiritua eta japoniarrena antzekoa dela, bihotzez: entzule euskalduna

oso apasionatua dela ikusi dugu, entzunez asko gozatzen dutela. Eta guk, hori ikustean, ere bai.

**Eta saridun ateratzea?**

Ez zitzaigun burutik ere igaro saririk jasotzea, eta handiena gutxiago, beste taldeak oso maila onekoak direlako.

**Euskaraz ere hobekien abestuz duzue...**

Japonian 80 urteko apaiz euskaldun bat ezagutzen dugu eta berak erakutsi digu aho-konten.

**Eibarren egin duzue egonera, ezta?**

Bai. Hara bildu gara gauerako, baina Euskal Herriaren zehar ibili gara kontzertuak ematen. Joan garen herri guztietan oso bero hartu gaituzte. Oso gustu- gaude. Egia esan, hona eto-



**Ettxerat-en aldarrikapenek ere leku**

**GIZARTEA ▶** Ettxerat elkarteak kontzentrazio ixila burutu zuen atzo Leidorreko atarian eta gero, sari banaketa ekitaldia hasi baino une batzuk lehenago aretoan bertako eszenategira ere igo ziren beren aldarrikapenaren berri,

munduko beste herrialdeetara hedatzeko asmoz edo, *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean bildu ziren. Kanpoan egon ziren bitartean, parez pare erantzainak izan zituzten, sakabanaketa materialak eskuan. J. ASTIBIA

**SAILKAPENA ▶**

**IKUS-ENTZULEAREN SARIA**

Schola Cantorum Coralina (Kuba)

**EUSKAL KANTU BAT ONGIEN INTERPRETATZEARI SARIA**

Brilliant Harmony: Xabier Sarasola musikariaren *Mendian gora* obragatik (Japonia)

**AHOTZ TALDEAK**

**▶ Musika profanoa.**

1. Voces Nordicae (Suedia)
2. Schola Cantorum Coralina (Kuba)
3. The Gents (Herbehereak)

**▶ Musika sakra.**

1. Voces Nordicae (Suedia)
2. The Gents (Herbehereak)
3. Schola Cantorum Coralina (Kuba)

**HAUR ABESBATZAK**

1. China Lily Children (Txina)
2. Poliot (Errusia)
3. Vox aurea (Finlandia)

**AHOTZ BERDINAK**

**▶ Polifonia.**

1. Brilliant Harmony (Japonia)
2. Estoniako Telebista abesbatza (Estonia)
3. Pfälzische Kurrende (Alemania)

**▶ Folklore.**

1. Brilliant Harmony (Japonia)
2. Kiev Glier music college (Ukraina)
3. Estoniako Telebista abesbatza (Estonia)

**AHOTZ NAHASIAK**

**▶ Polifonia.**

1. I Vocalisti (Alemania)
2. Schola Cantorum Coralina (Kuba)
3. Trinity College of music (Erresuma Batua)

**▶ Folklore.**

1. Trinity College of music (Erresuma Batua)
2. I Vocalisti (Alemania)
3. Schola Cantorum Coralina (Kuba)

**KUTXA SARI NAGUSIA**

Brilliant Harmony (Japonia)

**www.tolosaldeko hitza.info**

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...



Munduan zehar musikak duen aberastasuna eta gure herriko musikak kanpotarrengan lorturiko emaitzak konjugaratzen dira ordu luzez asteon Tolosan, eta horren adierazgarri izan zen atzoko saio koloretua: Kubako erritmo beroak, ipar-europarren jazz armoniak edota norbanakoen kantu herrikoiak. Guztiek gehien ezagutu eta estimatzen duten hori, gure musika eta musikagileen (Busto, Egiguren, Azurza, Sarasola...) obrei buruz eginko irakurketekin aberastu dira. Gure herriaren nortasunaren zati bat kanpotarrek berrinterpretatu digute eta aurrera begira munduan zehar zabalduko dute etengabeko ametsetan.

SANTU GUZTIEN EGUNA ▶

# Oroimenez beteriko eguna atzokoa

Goizean goizetik hilobiak bisitatzeari ekin zion jendeak hildakoak gogoratzu

IÑIGO TERRADILLOS

**E**gun berezia atzokoa, hildakoak gogoratzeko eguna, alegia. Egund tris-tea izan ohi da Santu Guzti-ena, eta, gainera, atzoko eguraldiak are tristeago egin zuen, egun osoan zeruak gris kolorea eta euritan ere bota baitzuen, kolore iluna.

Familiakoak, gertukoak, jadanik gure artean ez daudenak oroitzeko eguna izaten da, eta agian urte guztian oroitzen arren atzokoa omenaldi modukoa da.

Omenaldi honetan loreek garrantzia handia dute. Horrela, Tolosaldeko 28 herrietako eta Leizaldeko Leitza eta Aresoko hilerriak lorez beteta ikus zitezkeen eguna argitzearekin batera. Eta ohiko kolore grisa, lore ederren kolore biziz jantzen aurreko egunetan zenbaitzuek egindako lana islatuz. Ohiturari jarraituz, askok eta askok joan den astean hilobiak atontzen jardun zuten eta lore sorta ederrek urtebetez bildutako lore zimelak ordezkatu zituzten.

Baina loreekin batera, apaingarri gehiagorekin hilerriak hornitzea ere ohitura izaten da; kandelak, harrizko irudiak eta argazkiek osatzen zuten hilerrien *paisaia*.

Bestalde, egun osoan zehar adin guztietako jendea hurbildu zen galdutakoak gogoratu

asmoz, gaztetxoenetatik helduetara, denetarik ikusi zen, eta une hunkigarriak bizitzeko parada izan zuten. Gehienek familiarrean egin ohi dituzte bisitak, baina badira une berezi hau hildakoaren hilobi aurrean bakarrik egitea erabakitzen dutenak ere, atzokoa ikusi ahal izan ziren bezala.

Egunak beste berezitasunik ere izan zuen; kultura eta herri ezberdinetako jendea gerturatu zen sarritan denboraren joanak zahartutako hilobiak bisitatzera. Besteak beste, kanpotik etorritako familiak zebiltzan eskualdeko hilerrietan.

## Loreen salmenta behera

Betiko ohiturak mantentzen badira ere, loreen salmentak urtetik urtera behera egiten duela aipatzen dute lore saltzaileek. Hildako gorpuak, hilibiratzear gain, orain beste bide batzuk ere hartzen dira; horrela, adibidez, gero eta jende gehiagok hartzen du errausketa egitearen erabakia. Eta noski, honek zerikusia zuzena du atzokoa bezalako egunetan salmentek behera egitearekin.

Hala ere, beste ohitura batzuk indarra hartzen badoaz ere, azaroaren 1ak Santu Guzti- en Eguna izaten jarraituko du, hildakoak buruan, haien oroitzapenak izateko eta haiei une berezi bat eskaintzeko eguna.



Tolosa. Eguraldi txarra egin arren, jende asko gerturatu zen herriko hilobietara. AMAIA BELAUZARAN



Alegia. Adin guztietako jendea izan zen. I.TERRADILLOS



Leitza. Lorez beterik ageri ziren hilobiak. J.ASTIBIA



Villabona. Egund osoan zehar gerturatu zen jendea hilerriera hilakoak oroitzera. IÑIGO TERRADILLOS

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.:616 93 17 88



**Villabona.** 85 m2-ko etxebizitza salgai erdialdean. Berritzeko. 3 logela. 27.500.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Bi gelako etxea, berritzeko. Egurrezko egitura. 21.630.000 pta (negoziazarriak). Etxesagasti. 943 69 68 56

**Villabona.** Etxebizitza eraiki berria salgai. 90 m2-ko. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** 69 m2-ko etxebizitza, trastelekuak, egongela, sukaldea eta 2 logela. Eraiki berria. 4. pisua igogailuarekin.

Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** 90 m2-ko etxebizitza, egongela,

sukaldea, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Kanpoaldera begira. Eguzkitsua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ordizia.** 291 m2-ko villa salgai. 3 solairuko. 1.037 m2-ko lursaila. 80.000.000 pta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

**Ordizia.** 50m2-ko etxebizitza polita salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatzeko. 25.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ordizia.** 85 m2-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukalde handia, hiru logela, bainugela eta trastelekuarekin. 2. solairua igogailuarekin. Berritu berria, altzariz hornitua. 29.900.000 pezeta.

Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 90 m2-ko etxebizitza. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 80 m2-ko etxea. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Erabat berritua. Horma-armairuak. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 80 m2-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Guztiz kanpoaldera eta berritua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 61 m2-ko eta 8 m2-ko trasteroa duen pisu altua. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Altzariekin. Inmo Etxesagasti.

943 69 68 56.

**Zizurkil.** 80 m2-ko etxea. Hiru logela. Berritzeko. 28.800.000 pta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Lursaila duen baserria berritzeko. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Asteasu.** Etxe individuala. 135 m2-ko hiru solairu eta 15.000 m2-ko lursaila. Sartzeko prest. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Errezio.** Landaturismoa alokairuan. Informazio pertsonala. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Behar dira.** Eskaera handigatik: landa eta hirigntza lursailak, etxebizitzak, villak, baserriak... salgai edo alokairuan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

## MUSIKA ▶

IÑIGO ASENSIO

**H**ogeita lau urte daramatzate lanean eta denbora horretan Tolosaldeko belaunaldi ugari pasatu dira Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestratik. Abenduaren 3an abiatuko dira Austriara bidean. Bertan, «Eguberriak datozela eta egiten den kultur zirku baten barnean ariko dira lanean: 6an Isbruck-en joko dute, 7an Salzburgo-n eta 8an Viena-ko merkatuan eskainiko dute biraren azken kontzertua.

Ibilbide luze honetan maila gorenean mantentzea ez da, ziur, lan erraza izan baina urte urte nazioarteko txapelketa garrantzitsuenetako lehen postuetan egon izanak Euskal Herriko mugetatik kanpo entzute handia lortzeko aukera eman die. Orkestraren sorrera Tolosako Kilometroak zetorrela eta eman zen Isidro Larrañaga Belokiren eskutik. Hasiera batean festa hura alaitzeko helburua besterik ez bazuten ere, denborarekin kontzertuak eskaini eta txapelketetan parte hartzeko prestatzen joan ziren. Datoren urtean orkestraren 25. urteurrena izango da eta honen atariko opari gisa jaso dute bira hau egiteko aukera. Azken urteetan nazioarteko txapelketa ezberdinetan gailendu dira, eta badirudi lan hori ez dela alferrikakoa izan. Badakite, bestalde, Austrian topatuko duten entzulegoa ohikoa baino zorrotzagoa izango dela. «Han izugarriko kultura musikala dago, jotzerakoan zertzelada guztiak zaindu behar dira, guztiak gure gaitasunen muga egon behar du eta horrek prestakuntza lan handia egitera behartzen gaitu» dio Larrañagak. Hau guztia kontuan izanik, orkestra gaztea eta heldua bateratzea pentsatu dute, gauzak horrela, 50 akordeoilari izango dira ordube inguruko errepetorioarekin lanean, hemendik abendurako tartean obra guztiak landuz. Orkestra Gazteak, 13 urteko batz besteko adinarekin, urrezko domina lortu zuen joandako urtean Torrelavegako (Espainia) Nazioarteko Akordeoi Txapelketan eta maila onena emateko moduan daudela garbi dagoen

# Austriarako bidean

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak abentura berri bati ekingo dio abenduaren 3an; Austria izango da tolosarrek aukeraturiko eszenatokia



Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako partaideak Torrelavegako Nazioarteko Akordeoi Lehiaketako bi mailetan garaile suertatu ondoren. HITZA

arren, erabateko erronka da orkestrarentzat, ez baita ohikoa guztiak batera jotzen arikoa. «Entzulego handien aurrean ozentasun hobea lortuko dugu horrela», dio ziurtaturik Larrañagak.

## Hotza ere bidelagun

Austriako bira honetan topatuko dituzten tenperaturak -5 eta 2 gradu bitartekoak izango dira kasu baikorrenean eta egoera horretan jotzea ez da erraza izango. Hori aurrikusirik jazerka ere hanga beharretara moldatu beharko dute. Bertan jotzeko erreperitorio orekatua prestatu dute, estilo ezberdinak ukituz. Horrela Si bemoleko *Sinfonia* bezalako obra klasikoagoa, *Irlandar Suite*-aren aire zeltak edota Guridiren *El Caserio* bezalako obrak tartekatuko dituzte. Horrez gain, eta garaia aprobetxatuz, Eguberrietako abestien moldaketa batzuk ere prestatu dituzte bertarako. Beste behin, talde tolosar honek herriaren izena eramango du Europako lurretan zehar.

## ISITXO LARRAÑAGA ▶ ORKESTRA ZUZENDARIA

### «Orkestrak inoiz egindako irteera garrantzitsuena izango da hau»

80ean sortu zen orkestraren lehen kideetako bat izan zen. 94az geroztik orkestra gaztea zuzendu du eta 2000n aitaren lekukoa hartu zuen helduen orkestraren zuzendaritzan. Ruiz Bona maisuarekin solfeo eta armonia ikasi zituen eta aitaren ikasketetan oinarrituz, Donostiako Kontserbatorioan goi-mailako ikasketak egin zituen. Bizitza oso bat musikaren munduan aritu izanaren esperientziarekin mintzatu da HITZAREKIN Isitxo Larrañaga.

#### Nola lortu duzue bira hau egiteko aukera?

Suitzako *Grand Prix*-aren antolakuntzan lanean aritu zen kontaktu baten bidez agertu da aukera hau. Bertan egin genduz gero, zuzendariarekin eta Austriar egingo den Kultur Zirkuituan parte hartzeko proposa-



I.ASENSIO

mena egin zigun duela hilabete batzuk.

#### Zein da urteetan zehar maila gorenean mantendu izanaren gako nagusia?

Azken urteetan helburu garrantzitsuak prestatzeko egin dugu lan. Bischwiller (Frantzia), Ginebra (Suitza), Italia edota Torrelavega (Espainia) bezalako tokietan izan diren nazioarteko lehiaketetan hartu dugu parte. Etengabe maila horretako helburuak prestatzen ari zarenean ez da maila galtzeko aukerarik izaten.

#### Baina aurten ez zarete lehian ariko, ezta?

Ez. Italian izango den txapelketa batean parte hartzeko ginen baina honelako aukera baten aurrean, dudarik gabe Austriara jotzea erabaki dugu. Guretzat asegarrigoa da. Orkestrak inoiz egindako irteera garrantzitsuena izango da hau eta maila onena erakusteko ari gara atsedenik gabe lan egiten.

## iragarki laburrak ▶

### Administrazio laguntzaileak.

Lanpostu libreak bete behar dira: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Erreterria, Sorlazuze, Mutriku eta Zizurkilgo udaletan. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.  
**Gidariak.** Hamar lanpostu bete

behar dira Debako Udalean. Informazioa zaitzek eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.  
**Ertzaintza.** 200 lanpostu bete behar dira. Baldintzak: Eskola agiria. Izen-emate epea zabalik. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki

honetara: 943 65 01 93.  
**Vital Kutxa.** 70 lanpostu libre. Datozen inkorporazioak. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.  
**Mantenimendua.** Peoiak, operarioak, soldatzaileak, arotzak, elektrizistak, igeltseroak, mekanikoak

eta gidariak. Lanpostu libreak udaletan: Hernani, Usurbil, Arrasate, Arama, Erreterria, Antzuola, Legazpi, Zizurkil, Zerain eta Mendaro. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.  
**Hurtzaindegi publikoak.** Laguntzaile, zaintzaile eta hezitzaile

postuetarako jendea behar da. Informazioa zaitzek dohainik. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.  
**Peoiak.** Behar dira Arrasate, Zizurkil, Deba, Villabona, Erreterria, Antzuola eta Legazpi. Informazioa zaitzek dohainik. 943 65 01 93.

XABIER MENDIA ▶ TELEBISTA AURKEZLEA



ETB

## «Umeengan kontsumismo pasiboa nabaritzen hasi da»

Jendeak errealiterik gabeko 'reality show'-ak eta morboa nahi baditu ezer egiterik ez dagoela dio Xabier Mendiak

IÑIGO ASENSIO

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Leioan, orduan berria zen karrera bateko lehenengo promozioa osatuz. 27 urteko tolosar honek badaki telebista kontuetan ezer ez dela finkoegia eta bere lehen helburua lanean jarraitzeko aukerak edukitzea da. Bere ibilbidea, egungo telebistaren egoeraz eta aurrera begira dituen jomugez mintzatu da Xabier Mendia HITZAREKIN.

**Zein izan ziren telebistarako bidean eman zenituen lehen pausoak?**

Jende gehienaren antzera, udako praktikak egiten hasi nintzen bekadun gisa. Euskadi Irratian eta Radio Euskadi-n aritu nintzen eta handik telebistara pasatu nintzen, nahiz eta udan irratia egiten jarraitzen dudana; oso gustukoa dut irratia.

**Eta behin telebistan zaudenetik?**

Saio ezberdinetatik pasatu naiz. KTM-n hasi nintzen, ondoren Jaiak-en aritu nintzen eta gerora Betizu-n. Handik Bertatik bertara-ra aldatu nuen eta Ze Kosmopolita! saioan lan

egin ondoren, *Sorginen laratza*n bukatu dut, oraingoz, behintzat.

**Hainbeste aldagata egitean, desberdintasun handiak nabariko dira tratamenduari dagokionez, ezta?**

Bai, hala da. Erregistroa guztiz bestelakoa da Betizu-n eta Bertatik bertara-n. Modu berean, *Sorginen laratza*-n zuzen-zuzenean aritzeak asko baldintzatzuten zaitu. Saio bakoitzaren kontestura etengabe egokitzea behartuta zaudete, ikuslegoa ere kontuan izanik.

**Betizu-ko esperientzian oinarrituz, zer behar du umeentzako programa batek umeengan arrakasta izateko?**

Umeentzat lan egitea oso zaila da. Esaten dena eta hau esateko modua asko zaindu behar dira. Zaila da oso, jendeak uste duenaren aurka, umeak engaitatzea. Heltuak konformistagoak gara. Umeek beren partaidetza asko eskertzen dute, kontuz ibili behar duzu, bestela bizkarra erraz ematen dizute.

**Zer deritoxu gaur egungo telebistaren egoeraz? Telezabarra delakoa inposatuko al da pantailatan?**

Polemika antzua da. Garbi

dago *Aqui hay tomate* eta *Salsa rosa* bezalako saioak desagertzea ezinezkoa dela. Liskarrik, miseriak ditu gustuko egungo gizarteak. Ikaragarriko dirutza ematen duten saioak dira. SMSei edota mugikorrenzako melodiei esker diru asko lortzen dute ia kosturik gabeko eta telebista pribatuaren lehen helburua etekina lortzea da. Telebistak kultura sustatu behar duela suposatzen da, baina praktikan ez da hori gertatzen. Ezkorra bada ere, nik ez dut uste telebistak onerako bidea egingo duenik, aurkako guztia baizik.

**Ez al zaitu larritzen?**

Egia da, lanbide bezala, izengaltzea suposatzen duela kazetariontzat, baina ulertu behar dago. Etorbizuna hor dago. Jendeak morboa nahi du, errealiterik gabeko *reality show*-ek arrakasta badute, ez dago ezer egiterik.

**Eta umeengan ez al dezake ondorio larriak ekarri etekin planteamendu horrek?**

Lehenago esan dudanarekin kontrajarria badirudi ere, neurri batean umeengan kontsumismo pasiboa nabaritzen hasi da. Telebista kateek ez dituz-

### TELBISTAREN EGOERA

«Garbi dago 'Aqui hay tomate' eta 'Salsa rosa' bezalako saioak desagertzea ezinezkoa dela»

### ETORKIZUNA

«Ezkorra bada ere, nik ez dut uste telebistak onerako bidea egingo duenik, aurkako baizik»

### IRRATIA

«Telebistan guztia oso adostua dago; irratia askoz askeagoa da, subjetoagoa izan zaitezke»

te gehiegi izaten kontuan, eta gaztetatik kontsumo kultural murgiltzen dituzte. Umeek beren kabuz ez pentsatzea dakar horrek. Bestalde, negozio bategarri ari gara hizketan eta baliteke zilegizkoa izatea; konplexua da. Nire garaian beste mota batetako saioak zeuden umeentzat, *Barrio Sesamo* eta *La bola de cristal*-en modukoak, benetan hezigarriak zirenak. Egun gauzak aldatu egin dira, umeek telefono mugikorrek eta *play station*-ak dituzte buruan; irizpidea galtzen ari dira.

**Telebistan aritzeaz gain, irratian ere lan egiten duzu, non sentitzen zara erosoago?**

Lehen aipatu dudana bezala, irratia oso gustukoa dut eta ez dut baztertu nahi. Telebistan lan egiten hilabete batzuk dararamatzadanean irratira pasatzeko gogoa izaten dut eta irratian ari naizenean alderantziz. Telebistan guztia oso adostua da, irratia askoz askeagoa da, subjetoagoa izan zaitezke, diozunak zu zeu errepresentatzen zaituelako, eta ez programa bere osotasunean. Telebistan, saioak politika bat du, estilo liburu bat, eta horretara mugatu behar duzu. Biak batera, bai telebista eta bai irratia, egitea litzateke egokiena; izan ere, bakoitzak bere alde onak ditu.

**Amaitzeko, ba al duzu etorkizunera begirako erronkarik?**

Ez daukat ideiarik ere. Telebista guztiz ezegonkorra da. Gaur lanez gainezka egon zaitezke eta etzi inork ez zaitu deitzen. Nik ez dut aurrera gehiegi begiratzen, *Sorginen laratza*-n ari naiz orain, eta ez dut beste ezertan pentsatzen. Beste aukerarik badator, ongiatorria izango da.

### TELEFONOAK ▶

#### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Ibarraldea.** Osasun etb: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

#### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

#### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiturri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

#### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

#### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Iturriz 1., Euskal Herria 3, Ibarra. 943 67 09 15

Erbiti O. Lizarraga 7, (Leitza). 112

#### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publi@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona\_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzaidea.** 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

### iragarki laburrak ▶

#### SALGAI

**Autorako Irratia.** Autorako irratia salgai. Pioneer 7000 VX7", telebista, DVD eta 6 CD. Audio ekipoa aukeran.

Tel.: 618 77 29 50

**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa

salgai. Argibidetarako deitu:

943 67 48 06/943 11 77 38.

ZESTA-PUNTA ▶

MADDI SOROA

Tolosako Zesta-punta Elkarteak 1988an sortu zuten Jose Ignacio Elolak eta Ignacio Altunak. Lan astun eta gogorra zuten aurretik, baina ilusio eta gogoz beterik eskola sortzea lortu zuten azkenean. Beotibar pilotalekua Udalaren esku geratu zenean zesta-punt eskola sortzeko eskakizuna egin zioten, izan ere, bazen Tolosaldeko gazte-txoan artean zesta-puntarako zaletasuna, baina, ez ordea, gustuko kirola ikasi eta praktikatzeko paradarik. Ondorioz, zesta-puntazaleek inguruetako herrietara urreratu behar izaten zuten gogoko zuten kirolaz gozatzeko. Eskakizuna egin eta Udalak baieztua ematearekin batera, sarea jarri zuen pilotalekuan eta bertako instalazioak erabiltzeko aukera eman zion elkarteari. Ignacio Altunaren heriotzaren ondoren, Jose Ignacio Elolak bakarrik ekin behar izan zion lanari zazpi urtez. Egoera zail haren aurrean eskolako haurren gurasoez osaturiko zuzendaritza batzordea sortzea erabaki zuen Elolak.

Gaur egun, hamaseigarren urtea bete du Tolosako Zesta-punta Eskolak arrakasta osoz. Emaitezi begira, gainera, hainbat puntista bikain atera dira Tolosako elkartetik. Lizarraga eta Odriozola esaterako, Espainiako txapelduorde geratu ziren iazko denboraldian, lesioen ondorioz, ordea, ez zuten Europako Txapelketara joaterik izan. Iñaki Rezola, berriz, Euskadiko txapeldun atera zen iazko denboraldian. Ezin ahaztu, ordea, urtetan zehar Tolosako Beotibar pilotalekutik atera diren beste hainbat zesta-puntalari bikain ere, hala nola, Tximela, Zeberio, Altuna, Isasa, Urdanpilleta, Egurbide, Lasa, Etxaniz, Arregi...

Tolosako Zesta-punta Esko-



Tolosako Zesta-punta Eskolako alebin mailako haurrak, iazko denboraldian, Beotibar pilotalekuan. HITZA

# Zesta-punta Elkarteak, eskola baino gehiago

Hamasei urte bete dituen eskolak 40 lagun biltzen ditu Jose Ramon Arregi eta Jose Ignacio Elolaren esanetara

lan 40 lagun ari dira zesta-puntan jokatzeko eta ikasteko gogoz. Jose Ramon Arregi, pilotari izandakoa, du-te entrenatzaile. Elolaren begiek eta esanek ere badute tokirik pilotalekuko paretetan artean.

Gogoratu beharra dago herri-ritarren artean zegoen zaletasunagatik sortu zela eskola. Hortik abiatuta, beraz, zesta-punta gogoko duten gazteei kirol ikusgarri eta ezberdin honetan jarduteko aukera eskaintzea da eskolaren helburu nagusia. Txiki-txikitatik, zesta-puntan jokatzeko irakasten zaie, pilota nola bota edota zein jarrera den egokia erakutsiz, esaterako. 12 urterekin pilota nola mugitu, frontoian bizitasu-

na lortzen eta antzekoak irakasten zaizkie. 18 urtetik gora, berriz, botilleroaren papera betetzen dute entrenatzaileak edota Elolak, hau da, pilotak nola aukeratu, partida nola jokatu...

### Asmo berriak

Tolosako Zesta-punta Eskolaren asmo berrien artean, teknifikazioerako joerak berritzea eta kirolerako jarrera osasuntsua lortzea aurki daitezke, besteak beste. Kirola egin aurretik eta ondoren gorputza lantzen ikastea edota eguneroko bizitzan ohitura osasuntsuak hartzea bezalako ereduak garatzea, alegia.



Jose Ignacio Elola. MADDI SOROA

## «Orain ez dute ilusio bera»

Jose Igancio Elolak 22 urte egin zituen puntista profesional. 1946ko ekainaren 11n egin zuen debuta 17 urte zituela. Lehen bi urte eta erdiak Kanariar Uhartetean pasatu zituen. Handik Zaragozara joan zen, eta bertan aritu zen 1952 arte. Zaragozatik Milanera egin zuen salto hiru urterako. Milanetik, Amerikako Estatu Batuetako Tanpara abiatu zen; eta handik, Mexikoko Tijuana: ezkondu eta bertan izan zituen seme-alaba zaharrenak. Aita hil zitzaionean, ordea, Tolosara etorri, eta bertako bizi-moduari ekin zion, altzari dendan lanean jarri zelarik. Egun, zeharo murgilduta dago Tolosako Zesta-punta elkartearen. Denetik egiten du, irakatsi, entrenatu, programak egin, pilotak josi eta konpondu... Asmo onez joaten omen dira gehienak, baina, lehenengo garaia oraingoen oso ezberdinak direla usate du Elolak, izan ere, «oraingo gazteek ez dute guk genuen ilusio bera. Lehen, ahal genuen bezala ibiltzen ginen; orain dena daukate eskura». Zer dela eta galdetuz gero, «gauzak errazegi daudelako edota dutenaz jabetzen ez direlako izango da seguraski», dio. Irribarre batez zera gogoratzen du: «Orain gutxienez 500 pilota daude gazteen esku; gure garaian bakarra izaten genuen zortedunok, poltsikoan ondo gordeta. Tarteka, bote pare bat ematen genuen ezkutuan». Zesta-puntalari ona izateko argi dauka afizioa dela garrantzitsua; «afizioa izanez, eta gogo eta dedikazio pixka batekin, urrutira irits daitezke».

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-mail: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza. 119.000 eurotik aurrera.  
**Tolosa.** Korreo, 2 logela, erabat berriua, ezin hobeto, igogailua jartzeko aukera.  
**Tolosa.** Santa Klara. 4 logela. Berokuntza. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.  
**Tolosa.** Santa Klara. 2 eta 3 logelako pisuak salgai, sukalde, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza. 167.090 eurotik aurrera.  
**Tolosa.** Larramendi. Orain dela gutxiko eraikuntza. 2 logela, sukalde, egongela eta trastelekua. Berokuntza. Ezin hobeto.  
**Tolosa.** Amaro zuzen oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.  
**Tolosa.** Larramendi. Pisu ederra garajearekin salgai.  
**Tolosa.** Gernikako lorategian, 108 m2. Pisu ederra salgai. Trastelekuarekin.  
**Tolosa.** Araba etorbidea. Pisu ederra, garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitsua.  
**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza. Ikustekoa!  
**Tolosa.** Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin. Aukera paregabekoa!

**Tolosa.** Lurreamendi ibiltokia. Lau logelako etxe atxikia.  
**Ibarra.** Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. 3 logela, sukalde, egongela eta komuna.  
**Berogailuarekin.** Guztiz kanpoaldera.  
**Ibarra.** Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.  
**Villabona.** Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.  
**Villabona.** Etxe-ondo. Pisu ganbara eta garaje ibiarekin.  
**Villabona.** Kale Berrian 180 m2-ko etxebizitza berokuntzarekin.  
**Villabona.** Errota. Pisu ganbara eta garaje ibiarekin.  
**Villabona.** Kale Berrian. Eraikuntza

berriko etxea salgai. Garaje bikoitza ibia aukeran.  
**Villabona.** Larrea eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.  
**Berrobi.** 2 logeletako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 Euro.  
**Berrobi.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garajearekin.  
**Alegia.** San Juan kalean 161 m2-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.  
**Ikaztegieta.** Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. 270.455 euro.  
**Ordizia.** Berritutako etxebizitza merkea salgai.  
**Peñascola.** Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 2a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albitur, Aingia, Aizoa, Alzo, Ametsola, Anxeta, Balarriari, Belaurtza, Berastegi, Etxuain, Herribide, Ibarra, Irua, Lantza, Lechuru, Licarba, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zaurkil.

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurlaritza  
Kultura Saila

Eusko Jaurlaritza  
Kultura Saila

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzera

12

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### ERAKUSKETA

**Ibarra.** Gaurtik azaroaren 3ra, Benito Izagirre kultur etxean, 2004eko sanbartolometako argazki erakusketa. Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.  
**Villabona.** Gaurtik azaroaren 7ra, Aitor Garmendiaren 2004ko denboraldiari buruzko argazkiak. Irrintzi elkartearen, 19:00etatik 21:00etara.

### EMANALDIAK

**Oresa.** Basamortuei buruzko diapositibak, azaroaren 3an, 21:30ean, udallexeko ganbaran, Indo eta bere lagunaren eskutik.

### ZINE-KLUBA

**Alegia.** Sam Mendes-ek zuzendutako *Camino a la perdicion* filma ikusgai. Bihar, 21:30etik aurrera, Gaztebelean.

### HITZALDIA

**Villabona.** Gurea zinema-aretoan, 20:00etan, txirringarritako afizionatuak gai izanik, Oskar Ortiz de Guineak zuzenduta. Hizlariak: Agirrezabala, Obxotorena, Azanza eta Anton.




Abesbatza desberdinetako kideak elkarrekin ongi aski. J. ASTIBIA



Herberehetako zuzendaria eta epaimahaiko lehendakaria. J. ASTIBIA

# Abesbatzei adio goxoa

**TOLOSA ▶** Atzoko bazkaria izan zen Abesbatzen bukaera adierazi zuen azken ekitaldia; Tolosako babarrunez gozatu zuten bertan



Lanak bukatuxe ere bai, eta azken aukeraz baliatzen. J. ASTIBIA

### AMAIA BELAUNZARAN

**T**olosako Abesbatza Lehiaketa, Tolosako babarrunak. Ez dira ez bikote txarra. Atzo eguerdian behinik behin, giro bikaina izan zen Ferialekuan antolatuta zuten bazkarian. Bertan, 36 Abesbatza Lehiaketari adio gozo bat emanez bazkalduta zuten, parte-hartzaile, antolatzaile eta gainontzeko gonbidatu guztiak.

Aparteko aukera izan zen atzokoan Ferialekuan Abesbatza Lehiaketan parte hartu zutenek entzuteko. Goseak ez zuen kanturako gogorik kentzen nonbait! Bazkarian zehar ere, tartekatuz eta txandaka, ahots ederrak entzuteko aukera izan zen, babarrunez paso emanez.

Bazkariari hasiera piperrekin eman zieten, babarruna izan zelarik menuko protagonista, sakramentu guztiak ondoan zituela, noski. Postrea, berriz, gustu guztiak asetzeko modukoa: gazta irasagarrarekin eta moka-tarta, yogur kremerekin. Edateko Errioxako ardo ona aukeratu zuten gehienek. Bazkaria ondo amaitzeko

kafea, belar likorea eta patxaranarekin. Ederra bazkaria, bertako platera, mundu guzti-kantarian ahoen dastagarri!

Bazkalostean ere ez zen aspertzeko motiborik izan. Kantuan jarraitu zuten arratsaldeko 17:00ak aldera arte. Autobusak zain zituzten baina ezin kontuak eta kantuak amaitu: mahaitik altxa, ondokoak argutu, abiatu... baina berriro ere buelta mahaian kantari jarraitzen zutenei txaloak eta animoak emanez. Agurtzez ezin bukatu, alajaina! Bestalde, patxarana asko gustatu zitzaizkien ere izan ziren eta beren herri-herri, Kubara esaterako, eraman nahi zuenik ere bazen.

Batzuk festan eta besteak lanean aritu ziren, ordea. Izan ere 2. Batxilergoko ikasleak izan ziren atzokoan bazkaria zerbitzatu zutenak. Ikas-bidaia egin ahal izateko, urtero ikastetxe desberdinetako ikasleek jarduten dute horretan xoxa batzuren truke. Baina hala ere lanaren nekeak arintzeko beta ere hartu zuten, abesbatzetako neska-mutilekin solasaldi franko goxoak izateko aukerari muzinik ez baitzieten egin.

## ZORION AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

Garaz Zubeldia Altuna (Amezketak). Gaur urtebete. Zorionak eta muku asko etxekoan eta bereziki Jonen partez.



### URTE ASKOAN

June eta Naia Vazquez. Junek 6 urte eta Naiak 5 urte. Zorionak eta muku bat aita eta amaren partetik.



### ZORIONAK

Mireia (Amezketak).

Gaur urtebete. Muku handi bat aitabo eta amaboren partetik.

**HITZA, zorion agurren**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea**  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri: **HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udallexeko bulegoa - **LEITZA**  
**Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!**